

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

344n. zenbakia

2008 gabonilla



GABON ZORIONTSUAK



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 94 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de larreategi, 14-2 - Teléfono 94 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

GABON ZORIONTSUAK



- Gabon-jaiak urreratzen, gure irakurle guztiai eta euskaldun guztiai opa dautsegu zoriona.
- Zoriona arrantzale ta itxaskariai, zoriona baserritar eta lantegietako langilleai.
- Zoriona gaisoai ta ezinduai, zoriona espetxeratu ta erbestetuai.
- Zoriona gabon-gaba etxean eta bakez igaroko dabenai, zoriona zergaitik edo agaitik urrun dabiltzanai.
- Zoriona errigile ta politikariai, zoriona erritar zintzo ta baketsuai.
- Zoriona gurasoai, zoriona seme-alaba ta aitita-amamai.
- Zoriona Eleizako arduradunai, zoriona Barri ona gaurko arazoan argi lez jarri nai daben guztiai.
- Zoriona erriaren alde burrukalari diranai, zoriona isiltasunean erri-lana jakintza-saillean egiten dabenai.
- Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean gogo oneko gizonai.

Urte barri ona!

ON FAKUNDOREN ERBIA

On Fakundo erri txiki bateko abadea zan. Gizon ona. Iñun gizon onik ba da. Asko maite eben erritarrak. Beti eukan irribarre espanetan, beti agurrik zintzo ta beroena, aberats zein txiro guztientzat. Edozein mese de eskatu leikioen erritarrak, egingo eutsen da. Esku-zabala ta beargin utsa zan. On Fakundo eiztari-zalea zan ta egunero urteten eban, bere txakur biak eta eiz-izkilluagaz. Otartetatik erbia atara, tontortxu baten aurre-ra artu erbiari, ta plun....bota danbada bat eta erbia ilda itxi, ori zan On Fakundo´rentzat ludiko olgetarik atsegingarriena. Ez uste izan eiztari ona zan. Amaikatxo erbi-usain ba eukan abadeareneko sartenak. Ondo ekian mendialdeko Patxo´k.

Ipuiñeko arratsalde aretan, nekatuta egoan On Fakundo ta ez zan joan eiztara. Otoi liburua besapean artuta, inguruko solo artetik ibillaldi bat egiteko asmoz urten eban.

Arratsalde ona, Jauna. Agurtzen eben soloetan ebiltzanak eta on Fakundo´k agurrik zintzoenagaz erantsuten eutsen. Mendi aldeko Patxo´ren soloak ikusi bear ebazala emon eutson buruak. Ganera, Patxo´ren solo-landetan erbi asko ebillen ta ba leitekean arri edo sokillen bategaz erbiren bat afarirako eskuratzeko. Geldiro-geldiro, noizean bein atsedean apur bat artu ta otoiak egiñez, eldu zan Patxo´ren lurraldeetara. Amaikatxo bider damutu jakon eiza-izkillua ez ekarte. Upielako erbiak ez ebazan ba atara ondo-ondotxutik? Bai zera sokillekaz il. Guztiak egin eutsoen iges. Ba eroan samin bat Patxo´k solo egal baten aurkitu zanean!

Erbi asko, On Fakundo? Esan eutson Patxo´k.



Ez naz erbitan etorri, baña ederrak ikusi dodaz landa orretan, esan eban abadea´k.

Ikusi, ta atrapau ez? Diñotso Patxo´k.

Al izan ba´neu...Nire sokillei barre eginda iges egin dauste barrabanok, Patxo, ezingo dautsut gaur gabean erbi-afarira deitu.

Erbirik ez daukazulako ez da izango behintzat, jauna.

Iñotson Patxo´k.

Ez diñautsut ba, garaurik be ez darodala gaur nire etxera, patxo?

Eta nik bialdu dautsudana gaur goizean? Diño Patxo´k.

Goizean bialdu? Ez nekian ezer, esan eban abadeak.

Alantxe da bai, ederragorik ez dot aspaldion ikusi jarraitu eban patxo´k.

Ba nekian biotz onekoa zarana. Lagundu gura ba daustazu etorri zaitez gaur gabean nire etxera. Bion artean jango dogu, diñotso On Fakundo´k.

Pozik lagunduko neuskizu, baña ondo dakizu baserrian lan asko dagola beti. Neure osasunerako be jan dagizula, On Fakundo. la bestetxu bat noiz bialdu al dautsudan.

Urrengoa neuk, Patxo, urrengoa neuk bialduko dautsut eizara natorrean.

Poz bat eroan On Fakundo´k illuntze aretan sukaldera.

Ama gaur afari ona, ez? Esan eutson On Fakundo´k bere amari

Bai, seme, beti lez, erantsun eutson ama´k.

Baña abadea´k ez eban jan gau aretan erbirik.

Urrengo bazkarirako itziko eban ama´k, esan eban bere artean On Fakundo´k.

Urrengo eguneko bazkal-ordua eldu zanean, olan agurtu eban On Fakundo´k bere ama. Ama, gaur bazkari ona, ez?

Iñoiz txarrik ipiñi dautsut ala, seme? Diñotso maitasunez ama´k.

Ez baña... Mendi-aldeko Patxo´k atso erbi bat bialdu dauskun lez....

Gurera erbia bialdu? Ez da gorantzirik be. Niri behintzat.

Ez da izango?

Diñotsudana seme.

Niri adarra jo? Ni betilunez jarri? Ez ekian zetara jo gure abadea´k. Ludi onetan eropena gauzarik bearrenetarikoa dalakoan ogeratu zan gizajoa bazkal-ostekoa egiten.

Andik egun barru, barriro joan zan On Fakundo Mendi-aldeko lurraldeetara ta Patxo ikusi ebanean, esan eutson.

Lanean ez da, Patxo?

Bai, on fakundo, ta erbia gozo egon zan? Erantsun eutson Patxo´k.

Ziztrin ori, gaur be adarra joteko asmoz?, diñotso abadea´k.

Zer ba? Erbia ez zan eldu zuenganaño ala? Diño Patxo´k.



Ze erbi ta erbi-ondoko. Neuk neroan jan gurea besterik ez zan sartu gure sutean.

Ba, nik bialdu neban ba erbia zure etxera. Orko sasi artetik urten eban eta nik esan neutson, Txotxo, joan zaitetz abadegana. Guzurra esan ba neutson ez dakit jauna.

On Fakundo´k izan eban zati baterako barrea, Patxo´ren zitalkeri au entzun ebanean.

Eربي zein untxi, azkaritxu bat emon bear ko daustazu behintzat gaur, adar-jote onen orde, esan eutson abadea´k.

Otazua´tar Benito



LUKIA TA ARRANOA



Ona emen Afrika'ko jakituriak agertzen dauan beste ipuin bat. Artu daigun bakoitxak damoskun irakatsia.

Lagun aundiak ziran lukia ta arranoa eta ekatzen ebena alkarrari emoteko zin eginda egozan. Bein baten lukiak bere semeari esan eutson:

– Zoaz eta esan arranoari aitak luma bat bear dauala jaurtikia apaintzeko.

Arin joan zan semea, baiña bide-erdian beste pizti bat aurkitu eban okerra zana, Karemamoto. Onek itandu eutson nora joian.

– Arranoa ikustera noa, aitarentzat luma bat eskatzeko.

– Zuk txarto ulertu dozu. Aitak luma guztiak gura dauz.

Lukikumea zalantzan jarri zan, baiña arranoari luma guztiak eskatu eutsozan.

Arranoa asarratu egin zan, baiña berbea berba dala-ta emon eutsozan luma guztiak.

Lukiak semea ainbeste lumagaz ikusi ebanean, pentsau eban adiskidetasuna agertzenko egiten ebala ori arranoak.

Arik egun batzutara arranoak semea bialdu eban ule bat eskatzeko, belarriak garbitzeko bear ebala-ta. Arranotxua bidez joiala, Karemamoto aurkitu eban eta onek esan eutson.

– Nora zoaz?

– Lukiaren etxera noa amarentzat ule baten billa- erantzun eban arranotxuk.

– Txarto ulertu dozu. Amak narrua dana gura dau.

Zalantzan jarri zan arranotxua, baiña joan eta narrua dana eskatu eban eta lukiak emon egin eutson. Arranotxuak berak kendu eutson narrua.

Bata narru bagerik eta beste luma bagerik, biak alkartu ziran egun baten eta laster ikusi eben euren seme-alabak sartutako ziria. Eldu ziran etxera eta biak zigortu ebezan umeak. Oneik kolorga eta zazpuztuta, Karemamoto'ri iraktsi bat emotea erabagi eben, baiña errudun au iges eginda egoan.

Biak ikasi eben auxe: Gurasoakaz fietan ez dana, samintasunezko itxasoan itoko da egunean baten.



Olazar'tar Martin'ek

ETXENAGUSIA'TAR KARMELO JOAN JAKU



2008´ko zemendiaren 6´an joan jakun gure artetik Aitaren Etxera ETXENAGUSIA´TAR KARMELO (g.b.).

Bere azken itzak AURRERA EGIN izan zirala, irakurri dogu.

Gure bidea ori izan da orain arte. Eskerrik asko ON KARMELO.

Agur! ta egun aundira arte EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN IZENEAN

ABADEGINTZAREN URTEURRENAK OSPATZEN



Bitarikoak izan dira 2008 an Bilbaoko Elizbarrutian ospatutakoak.

jagokon espiritualitatea” gaitzat artuz. Entzule askotxu izlariak ia ordubiko berbaldian euki ebazanak, ospatzaillak eta ainbat abade lagun euren artean agertu ziralako.



1948-2008

DIAMANTEZKOAK. 1948 an abadetu ziranak ospatu dabez,aurten 60 urte beteaz. Izan be, lenago 75 urte eskatuten ba ziran,gaur egunez 60 gaz Diamantezko saillean sartu leikez. Bilboko Gotzaitetik Bikaritzatik egindako deiari erantzundakoak, amabi inguru abade-erlijioso izan ziran.



Amabi ta erdietan,Begoñako Ama Basilikan abade-arteko Meza ospatu zan. On Ricardo Gotzaia, buru zalarik. Antxe ziran Diamantezko ta Urrezko eztegu ospatzaillak, berrogeitik gorako talde ikusgarri bat osatuz, elizkizun ederra burutzen. Aldarean ikusi ziran Bilboko Gotzañaren alboan, bere Laguntzaille Mario Izeta Jauna, C. Etxenagusia Lagutzaille oia(g.b) ta Pasiotar Gotzai bat.



1958-2008

URREZKOAK. Sail onetakoak 1958 an egin ziran abade,aurten 50 urte betetuz. Bilboko Elizbarrutiko ta erlijiosoen artean Bikaritzaren deiari erantzundakoak ogei ta amarren bat(60) izan ziran.

Urteurren orreik,Diamantezko ta Urrezkoak, ospatzeko eguna ekaiñaren 27,barikua, izendatu zan. Baita jagokon egitaraua be jakinerazi.

Egitarauak eskatuten eban araberan, ekañaren 27 an,goizeko 10,30 tan Begoñako Gogartetxean bete zan lenengo jardunaldia Saturnino Gamarra Jk. bere itzaldian “Abadeari



Ordu bietan, batzuk eta besteak, bildu ziran bazkalduteko asmotan, Gogarteko Jantokian.

Guztien artean eun eta berrogei bat bazkaldar. Giro ederrez asi be asi zan. Blázquez Jaun eta gañerako iru Gotzaiak mai-buru egiñez. Asiera asieran Mario Jk. Agurtu eban jantokian egoan multzoa zorion apartekoa emonaz abade eztegu-ospatzellai.

Exerlekuak ez ezik, maigañak be bete ziran, zer jan,dastatu, ta gozatzeko eskeñiaz. Serbitzariak(Karmeldar erlijiosen gidaripean) ondo asko ekin eutsoen bere eginbearrari.

Brindis aldian, onako bertsoak bota ebazan bazkaldar batek (1):

1.– Bertso doñuaz nator,
apalik benetan,
Diamantezko urte au
goraltzeko asmotan.
Parrokietan batzuk,
bestek auskalotan,
danok ibilli gara,
Kristogaz lanetan,
nekeak igarota,
Gaur, gagoz pozetan.



2.– Beñola entzun gendun,
Jaunaren mezua:
“zoazte ta zuzendu,
mundu okertua”.



kristo izan da beti,
Gure eredua,
Bera langille ona,
Biotz onekua,
Gau ta egun luzatuaz,
Esku indartsua.

3.– Klaret Santua dogu
Gogora ekarten,
lurralde ontan izana
Barri ona ereiten:
gipuzko ta bizkaian,
t´araban sarriten,
Abade ta monjari,
Berbaldik egiten,
T´euskal liburutxuak,
Doanez emoten.



Entzuterakoan,
Sartu gaitzala, Amak
Zeruko erreinuan...

4.– Begoñan dogun ama,
Maitatuz egitan,
Gu azen aurrera pozik,
Itxaron bidean
Eta gaur edo biar,
Olan edo alan
Jaungoikoaren deia



Azken agurra emoterakoan,Blazquez Jaunak, eskerrak eta zorionakaz batera omen-
duen eskuetan oparizat, Gamarra abadearen
“Manual de Espiritualidad Sacerdotal” deritzon
idaztia itzi eban.



Arratsaldeko bostak inguruan, uso talde baten antzera, egazkada leun-alaitsuz,abiatu ziran jai-egilleak Begoña gañetik bere oizko kabietalderantz.

(Claudio Barroeta, Antonio M^a Claret (1807-1870) santuak sortutako Anaidi kidea)

LAU LAGUN INDARTSU



(Euskal-iipuin zarra)

Munduan beste asko bezala, Susubil errian mutil gazte indartsu bat bizi ei zan. Giartsu bere izena.

Bein baten Giartsu, amalau arroako burdinmakilla eskuetan artu, eta ludi zabalera urten ei zan, bazterrak ikusteko asmoz.

Joan ta joan, ibilli ta ibilli, gizon indartsu bat aurkitu eban, atx andi bateri eusten.

– Zertan diarduzu, gizon indartsu?, itandu eutsan Giartsuk.

– Erriaren gaiñera jausi ez dedin atx oneri eusten nago emen.

– Ez zara makala. Zatoz nerekin.

Biak joan ta joan, ibilli ta ibilli, eiztari bat aurkitu eban, errotarian zango bat sartuta eukala.

– Zergatik zagoz, orrela, eizari arin? itandu outsoen.

– Ni ariñegia naiz, eta erbiai ere aurea artzen dautset, eta erbien neurrian lasterka egiteko errotarri au astungarri bezela artu dut.

– Ez zera astuna. Zatoz gurekin.

Irurak, Giartsu, Indartsu eta Eiztaria, joan ta joan, ibilli ta ibilli ola-gizon bat aurkitu eban bere agoko arnasaz putz-egin ta putz-egin.

– Zertan diarduzu, ola-gizon?, itandu outsoen.

– Nik neure agoko arnasak zazpi errota eta iru olari indarra emoten dautset ibilli ditezen.

– Ez zera motela, ola-gizon. Zatoz gurekin.

Laurak: Giartsu, Indartsu, Eiztaria eta Ola-gizona, joan ta joan aurrera, Galipornia'ko Erregearen uri-burura eldu ziran.

Ain zuzen erriko jaiak ziran, eta erri guztia soiñu ta dantza, pozez eta alaitasunez jaietan aurkitzen zan. Ba zan an umore ona.

Jaietako jolas ederrenak txapelketak ziran, eta sariak ezin obeak.

Lenengo txapelketa laisterketa zan: ea nor ariñeketan aurrena izan. Txapeldunak kata-narrua urrez betea artuko eban saritzat.

Laisterketa asi zanean, gure eizari ariñak, beste korrikalari guztiak sei legoa atzean utzi zituan. Aien arnas-estua eizariaren atzetik!

Kata-narrua urrez betea gure eizariarentzat izan zan.

BIGARREN TXAPELKETA ARRI-JASOTZEA ZAN

An ikusten zan zelai erdian ogei arroako arri astuna, nork geiagotan leporaiño jasoko ete eban begira.

Lepora geiagotan jasotzen ebanak ardi-narrua urrez betea izango eban saritzat.

Galipornia'ko gizon indartsuenak etorri ziran, baiñan alegin guztiak eginda ere, ezin izan eban, ezta bein ere, leporaiño jaso.

Orduan gure Giartsu zelai erdira urten zan, garrikoa ondo estutu eban, eta lurrera makurtuta, ogei arroadun arri-tzarra artu, lepora jaso, eta atzamar txikiak, pelota balitz bezela, lepo inguruan biraka erabilli eban. Ango txaloak eta, joei, ori! deadarrak!

Gure Giartsuk arriaz neiko jolas egin ondoren lurrean utxzi eban, eta erregearengana joan zan, irabazitako saria artzera.

Ardi-narrua urrez bete-betea emon eutsan Galipornia'ko erregeak. Lau lagunak: Giartsu, Indartsu, Eiztari eta Ola-gizona oso pozik egozan.

Irugarren txapelketa soka-tira za, eta Galipornia'ko erregeak idi-narrua emongo eban saritzat, urrez goraiño betea.

Soka luze bat zelaira ekarri eban, eta erdian zapi zuri bat lotu.

Soka-mustur batean, Galipornia'ko eun gizon indartsuenak jarri ziran, eta bestean atxari eusten eutsan gure morroskoa.

Galipornia'ko erritarrak gure morroskoari barre egiten outsoen:

– Erbesteko gizon orrek, gure gizonak ollalumak dirala uste ete dau?

Epaileak turuta jo, eta indarketa asi zan.

Lenengo bultzakadan





gure morroskoak, narrazka, Galipornia'ko eun gizonak bere aldera ekarri zituan.

Ango gorak eta ango txaloak. Ori dok,

ori!!! Erregeak idi-narrua urrez betea emon eutsan.

Gure lau lagun indartsuak, kata-narrua, ardi-narrua eta idi-narrua bizkarrean artuta, pozaren pozez, etxerantz abiatu ziran. Baiña orduan Galipornia'ko gizonak, erebestekoak urre guztia irabazi ebelako bekaitzez erreta, Erregearengana joan ziran, lapurrak zirala gure gizonak salatzeraz.

Erregeak sinistu eutsen, eta milla soldatu bialdu zituan, fusil ta kañoi ta guzti, mutilen atzetik.

EZAGUTZAT

Biriak zertarako dira?

Biriak zainetako odola garbitzeko dira.

Biriak odola zelan gartzitzen dabe?

Biriak odola oxigen'aren bidez garbitzen dabe.

Biriak garbiketan, zer emon eta zer artzen dabe?

Biriak garbiketan, oxigen garbia emon, eta lurrun zikiña artzen dabe.

Odolak garbiketan, zer emon eta zer artzen dau?

Odolak garbiketan, lurrun zikiña emon, eta oxigen garbia artzen dau.

ARIKETA

Utsuneak bete egizuz:

Arnas-artzeariesaten dautsagu.

Arnas-emoteariesaten dautsagu.

Biriak zelakoak dira?

Gogorak, giunak, estuak, barru-utsak, azurrezkoak, zabalak.

Esanai bardiñeko itzak alkarren ondoan lotu egizuz:

Ats-gora, arnas-emon, eztarria, aizea kanpora bota, pleura, arnas-artu, laringe, andarraia, ats-bera, aizea barrura sartu.

PIHIPITAKIAK

Pihipitaki, pahapataki, nik ba dakit gauza bat:

1. Balio ez jateko, ata bera barik ezin bizi. Zer ete da?

2. Ola-gizona, auspo birekin, gau ta egun, putz-egin eta putz-egin.

3. Gora-goraka, lan egiñaz astuntzen, bera-beraka, jtsi-ala arintzen.

Ez da ikusten, ezta ikutzen.

Bera galta ezkerro laster iltzen.

4. Mendian garbi, ta kalean zikin.

Uragaz ekin ta ekin, ta gartitu ezin.

Ainbeste armadun gizon, fusil ta kakñoiak, euren aurka etozela lau mutilak ikusi ebenean, ikaratu ziran.

Baiña ola-gizonak bere lagunai esan eutsen:

Ez ikaratu. Geldi emen bertan. Utzi nire gain oillo busti orreik. Neuk dakit zer egin!!

Eta arriz agoa bete, ats-gora arnas-artu, biriak aizez bete, eta bere bularreko auspoen indar guztiaz iputz! egin eban.

Alako kañoi indartsurik ez da sekulan ikusi!!

Arek jaurtitzen zituan danbadak eta bunpadak!!!

Gure lagunak: Giartsu, eizaria, ola-gizona eta atxari eusten eutsana, kata-narrua, ardi-narrua, eta idi-narrua urrez beteak sorbaldan artuta, bakotxa bere etxera joan zan.

Andik aurrera aberats eta zoriontsu bizi ei ziran.

Ala bazan, ez bazan, sartu dedilla kalabazan, eta urten Iruña'ko plazan.



AGIÑALDE



Gure basetxea muiño baten egian jarrita dago, ta bere izenak adiarazten duanez, atxekaldean agin zaar lerden bat azkona bezela ortzirantz jeikitzen da. Iñork ez daki agin au noizkoa dan, baiñan gauza batetzaz ziur nago; basetxea baiño aintziñagokoa dala alegia, onen izena zugaitzetik artua izan bait-da.

Agiñalde'ko etxaurrea ego-sortalderantz erai-kita dago, ta erdi-erdian ago erraldoi baten antzera, atadi zabal, txeratsua dager. Barnean ate bi ikuste dira; eskubikoa korta aundi batera idekitzen da; ezkerrekoa aldiz, sukalde garbi, txukun bateko sarrera dugu. Leio bik argituriko, erdian mai luze bat, ete alde batean, suete egokia kebide zabal batez burututako, gela u bere arlasta aundiekin etxeko egotegi nagusia da. Emendik iru ate lo-gela bana idekitzen dira. Sukaldetik, zurubi egoki batek goiko maillera darama. Emen, lo-gela bi aurkitzen dira, ta enparauak ganbara txukun eta egokia eratzen du.

Etxetik ez urrun labe zaar bat jeikitzen da. Orain gizaldi bat, labea askotan erabiltzen zan, baiñan arrezkero udazkeneko egun batzu-

etan soillik, etxerako artoa erretzeko. Labe-ondoan, intxaurrondo garai bat etxeko gaillur baiño gorago edatzen da, ta benetan atsegin zaidala goiko adarretatik, ikusmen-mugaraiño zabaltzen dan gure araneko edertasuna begiz-tatzea...! An beean bost auzoek inguraturiko, gure erri maitea uso-talde zuri baten antzera datza, alde batetik Aranibe ibaiak zearkatuta-ko, ta gero alorrak, zelaiak, basoak, eta oroz gain gure Lizarmendi'ko tontor arroa. Askota orduak joan orduak etorri, intxaurrondotik ikus-ten dan edertasun amaigabea begira ta begira egoten naiz... gero... nik ez dakit nola, baiñan biotz-biotzetik, zoro baten antzera, barneko poz garaitu eziñik, nere txio sarkorrak non-nai jaulkitzen ditut.

Agiñalde, alor eta larrez inguratuta dago. Errira joateko gurdi-bide bat edatzen da, oiñez ogei bat miñutuko bidaia bear da ara jeixteko. Onantzakoan berriz, aldatz gora danez ordu erdiko bidaldia dugu. Errirakoan, Agiñalde'ko lurak zearkatu ta gero, Bidegain deritzan auzoa eskubian agertzen da. Gero, bidea arizti ta piñudi batzuen zear dioa biurgune zabal bat eratuaz, eta azkenean alor batzuk igarorik, Aranibe ibaiko zubia zearkatu ta errian sartzen da. Zubiz onaindian, Errotazar, orain errian ur-indarrez dabillan errota bakarra dugu, bere antepara zabal, sakonaz, erriko mutillen ige-ritegi ederretsia. Aintziña ur-indarrez erabilita-ko beste errotak orain tximist-indarrera biurtu dira, ta aungaitik uren suzmur atsedengarria Errotazar'an bakarrik aditzen da.

Gure erria ez da aundia ez txikia, bitartekoa baizik. Kale luze bat mutur batetik besteraiño luzatzen da. Auxe dugu gure kale nagusia, erriari bizitza ematen diona. Emendik asita, beste kale laburrak ezker-eskubi zabaltzen dira, ta saltokirik ez diuztenez, baketsu, ixillak, lotan



bezela agertzen dira. Errian ez da lantegirik, baiñan emeko gizon asko inguruko errietako oletan ari dira, batez ere Atxandi'n gure araneko erri-buruan, emen jeikitzen dan metalgintza aundi samar batean.

Beste urrengoetan erriko zeatz asko emango dizuet, orain baiñan, Agiñalde'n bizi dira neure biotzeko maiteentzaz mintzatuko natzaizue.

Amona dugu Agiñalde'ko txingurria, ez-arian bezela danetara irixten dana, zalaparta gabe amaika lan egiten dakiena, batez ere sukaldekoak eta etxe-barnean egiten diranekoak. Gaiñera, bere ardura-pean umeen garbitasuna ta oilloen janaria. Emakume maratz eta ixiltsu au etxeoandreaken ama da, ta itz urrikoa

ba-da ere, esaten duana aintzakotzat artzen da.

Mikel etxejojauna, baserritar jatorra da. Itz gutxikoa baiñan langille porrokatua ta adimen argiko gizona. Ogetamabost bat urteko gizon sendo onek, ba-daki basetxe bat nola erebilli bear dan. Orain urte batzuk, Agiñalde'n ez da garirik ez artorik ereintzen; lur guztiak, abelgorria azteko bear diran larrak, eta etxerako bear dan arto-sailtxo bat izan ezik, barazkientzako dira. Egunero, etxetik errira gure astoak gurdian barazkiz beteriko otarrak daramazki, eta emen kamioi batean sartu ta Bilbo'ra. Onela, Agiñalde'ko tomateak, piperrak, azak, urazak, azaliliak, zerbak, porruak, kuiak eta abar, ango merkatuan arin eta mozkin onean saltzen dira, bai ta gure etxeo sagar eta madari bikaiñak. Orain gutxi dala, gure etxejojaunak Agiñalde-gibelean zabaltzen dan Muiñozabal'ko otadia garbitzeko asmoz erosi du, gero emen larradi aundi bat gertatzeko. Orain etxera ura ekartzeko asmoa buruan darabil, au etxeoandreaken amets bizia bait-da.

Etxekoandrea... Ona emen gure eguzki ta alaitasuna. Bera agertzen danean, ba-dirudi inguratzen zaion guztia argiz beterik dizdiratzen dala. Begiak eta adatsa gaztainakarak ditu, ta aren aurpegi ederean ago parrekoiak alaitasuna ta zoriona nonnai jaulkitzen ditu. Maiz

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeita bost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebahi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 25 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!



ikusia dut etxejoauna aren adats berdingabea laztanduaz, eta orduan izarrak alakoak dira emaztearen begietatik, zerbait maitasunezko argia bai'litzan dario, ta etxejoaunak zoriona menderatu eziñik, ezpan dardartsuz adats jaukala mosuz laztantzen dio.

Agiñalde'n iru seme-alabak dira. Seme nagusia Mikeltsu dugu, zortzi urteetako mutil txairoa, aurpegiz amaren itxurakoa, ain parrekoia ez ba-da ere. Basetxeko lanetarako arras zaletua da, ta zer esanik ez, aitaren itxaropen bizia da. Gero Edudernetxu, aitaren irudia ta amaren gogo alaia erakusten dituan sei urteetako neskato pollitak; ikasteko joera bereizia adiarazten du neskatil argi onek, eta amaren gogo bizia da, ikastola-andereiñotarako ikasgoa bete dezan. Mikeltxu ta Edurnetxu erriko euskal ikastolara diozten, ta euskera zoragarria darabilte. Gero Yontxu gure lau urteetako buruaustea dator. Guztion baiñan batez ere amonaren kutuna da. Beti biurrikeriren bat asmatzen dabil, eta ondoretzat aitaren edo amaren akarrak entzuten diranean, arrapalada batean amonaren magalean ezkututzen da, ta portu baretsu ontan dirau, ekaitzaren ezaugarriak itzali arteraiño. Baiñan egia esateko danok biziro maite dugu barrabastxo, ta bera gabe Agiñalde'ko bizitza eguzki gaberik irudituko litzaiguke.

Ukuillu zabalean, bost bei eder eta txal bi dauzkagu, asto zaar bat eta onen ondoan Ankaluze astaume ospetsua, Yontxu'ren idorokunde bikaiña, beste urrengo batean edes-

tuko dizuedanez. Gero Txo, etxeko zakur zuria, aunditasun urrikoa baiñan adimen eta biotzez aundia, aren begietatik darizkion txinpartek darakustenez. Urrengoan azalduko dizuet, zakur kementsu au gurera nola eldu zan.

Onezaz gaiñera jakiña, ogeitsu oillo ta aateandana oiulari bat, bai ta aaztuzeko zorian nuan nuan etxeko katu maltzurra.

Azken-azkenik ni nauzute Agiñalde'ko ñimiño-en, baiñan bai txiolari zaratutsuena. Leen etxe-koak nitzaz aritzen ziranean, esan oi zuten:


– Orra or berriz txepetx berritsu ori...!

Orain ordea erriko izparkaria naizenez geroz, gure txepetxea gora ta gure txepetxa beera, etengabe agoan narabilte.


Onela bada, Agiñalde'n bizitza paketsu ta elkarganako maitasunaz beterik darrai. Aunitz maite dut bene-benetan gure txoko zoragarria, baiñan areago agiñaldetarrak ene biotzekoak. Nere izaeran ain sakon sarturik ez ba'lira, ludian zear alderrai baten izaera noragabea eramango nuke.

Mitxine





SORRERA



A zan gauaren baltza...!
 Upan baiño illunago
 bizi zan seintxoia;
 ez negar, ez kezkarik
 umekia ixilik...
 itxirik aoa.

Amaren erraietan
 artu eban arnasa
 aragi, azurra;
 antxe alkartu ziran
 gogoa ta odola
 giza irudira.

Amaren sabelean,
 ate danak itxita,
 aurra zoragarri;
 nik ez nekien zer zan
 argi gabeko gaua,
 ama maitegarri.



PAULIN

GARAI EDO ORREO ZARRAK BIZKAIAN



Baserrian bear-bearrekoak dira uzta eta batez be garauak zaintzeko lekuak. Sarritan kamarea izaten da toki ori. Baiña Galitzia'tik eoadlerantza (Portugal) eta sortalderantza (Asturias, Kantabria) gizaldi batzuk dirala garaiak edo orreoak deritxen garautegiak, egin dira, etxetik bereiztuta. etxe-antzeko eraikuntza txikiak izaten dira, lau arrizko ageren gaiñean eta teillatua estalki dabela, labatik alboratuta.

Toki lautuak izaten dira, zurez ondo itxiak eta tellatua ur bitara daukela. Or zaintzen



dira aziak, garauak, sagarrak, gaztañak, eta abar, saguak sartu ez daitezkan ondo itxita. Lurretik be goratuta aizea ondo artzeko. Arrizko mailladia eukiten dabe aurrean igoteko, balkoi bat, ate bat ondo itxita eta giltzagaz. Barruan alboetan toki luze bi atekaz eta, sarritan, erdian beste toki bat. Kamarea be eukiten dabe gaiñean eta ona igoteko barruan eskuko mailladitxu bat.

Bizkaia'n, oraintsura arte 17 garai edo orreo edo garautegi izan dira. Beste asko eta asko galdu dira, aizeak edo euriteak edo zerbait gaiñera jausi daukelako izan dira zapuztuak.

Ona emen oraintsura arte ikusi al izan doguzanak. Geienak or dagoz osorik edo ondakiñak baintzat.

1.– Elorrio'ko Argolaeta. Miota auzoan. Martin Landa, jabea. Etxe-aurrean 14'60 m'ra. Lau age are-arrizkoak.

2.– Garai'n Aiertzagoitia'koa. Etxetik 12'20 m.'ra. Are-arrizkoa ageak.

3.– Berriz'en Andikona auzoan. Iru gela ta kamarea.

4.– Berriz'en Besoita auzoan. Juskor dago.

5.– Erletxeta Galdakao'n.

6.– Iurreta'n, Ertzilla. Etxe-aurrean, 16'50 m.'ra. Zazpi maillako mailladia aurrean eta kamarea gaiñean.

7.– Etxebarria'n Iburguen izenekoa, Emeterio Guenetxea'rena.

8.– Nabarniz'en Iburguen izenekoa. Izar bat eta izkiak agean (1571).

9.– Abadiño'n, Ibarra Beazkoa. Eusebio Agirre'rena.



10.– Etxebarria'n, Iriguen Beña. Arrizko mailladia ta kamarea.

11.– Abadiño'n, Larrazabal izenekoa, Kamara aundia eta aurrean mailladia.

12.– Etxebarria'n, Labiano Goikoa, Doroteo Urzuriaga'rena.

13.– Aulestia'n, Narea Goitia izeneakoa. Floren Urizar jabea.

14.– Ispaster'en, Mendezona Goikoa.

15.– Aulestia'an Narea Goikoa.

16.– Mallbia'n, Zengoitia Bengoa, (1721), M.^a Asuncion Zengotitabengoa'rena.

17.– Elorrio'n, Zenita Aldekoa, Ascensio Garaizabal'ena, lau age are-arrizkoak, arrizko mailladia aurrean eta kamarea.

GAUR ZERTARAKO ERABILTEN DIRAN:

Baserriko bearkizun guztietarako: bost oilloak eukiteko, bost sugarria eukiteko, bi irea gorde-teketo, bedar zikua eukiteko beste bei, konejuak (untxiak) eukiteko beste bi, laztoa eukiteko bat, txarrikota, bat, pentsua eukiteko bat, kotxea eukite beste bat.

Garai edo orreoak aspaldion billatuak izan dira eta 360 aurkituak. Gaur geienak galtzen doaz, tamakez, ez dira igaro alperrik 500 urte euretariko askorentzat: aizeak, edurtzak, eurite aundiak, gaiñera zerbait, zugatzak batez be, jausteak, izan dira kalte-eragille. Sarritan ondakiñak baiño ez dira geratzen leku askotan. Eta sarritan ez da ezer be geratzen...

Euskaljerri osoan, Araban ez da izan garai edo orreorik, Orduña-aldean banaka batzuk izan ezik eta antza dagoanez, iñoz be ez dira egon. Gizpuakoa'n: Bergara'n dago bat, Oiñati'n beste bat. Napparroa'n ba-dagoz eta iru uretarakoak dira, guztiz 21.

Jakingarria garai edo orreo'en edestia eta gaur egiten dabezan zerbitzuak, esan dogun lez baserriak bear- izan asko izaten dauz.



OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALDUN ZAR ETA BARRIENTZAT

Izan naz he sido	Izaten naz soy-suelo ser	Izengo naz seré
Egon naz he estado	Egoten naz estoy-suelo estar	Egongo naz estaré
Ibili naz he andado	Ibilten naz ando-suelo andar	Ibiliko naz andaré
Joan naz he ido	Joaten naz voy-suelo ir	Joango naz iré
Etorri naz he venido	Eorten naz vengo-suelo venir	Etorriko naz vendré

yo soy
NAZ ZARA DA GRA ZARIE DIRA

Izan nintzan fue (ser)	Izaten nintzan era (yo)-solía ser	Izango nintzan habría sido (yo)
Egon nintzan estuve	Egoten nintzan estaba (yo)-solía estar	Egongo nintzan habría estado (yo)
Ibili nintzan anduve	Ibilten nintzan andaba (yo)-solía and	Ibilliko nintzan habría andado (yo)
Joan nintzan fue (ir)	Joaten nintzan iba (yo)-solía ir	Joango nintzan habría ido (yo)
Etorri nintzan vine	Eorten nintzan venía (yo)-solía venir	Etorriko nintzan habría venido (yo)

yo era
NINTZAN ZIÑAN ZAN GIÑZAN ZIÑIEN ZIRAN



yo	estoy	yo	ando	yo	voy	yo	vengo
Ni	nago	Ni	nabil	Ni	noa	Ni	nator
Zu	zagoz	Zu	zabiz	Zu	zoaz	Zu	zatoz
Berea	dago	Berea	dabil	Berea	doa	Berea	dator
Gu	gagoz	Gu	gabiz	Gu	goaz	Gu	gatoz
Zuek	zagoze	Zuek	zabize	Zuek	zoaze	Zuek	zatoze
Eurak	dagoz	Eurak	dabiz	Eurak	doaz	Eurak	datoz

Iñaki —	Iñaki	la oveja —	ardia
de Iñaki —	Iñaki'ren	de la oveja —	ardiaren
a Iñaki —	Iñaki'ri	a la oveja —	ardiari
para Iñaki —	Iñaki'rentzat	para la oveja —	ardiarentzat
con Iñaki —	Iñaki'gaz	con la oveja —	ardiagaz
		con las ovejas —	ardiakaz



Iruña —	Iruña	el monte —	mendia
de Iruña —	Iruña'n	en el monte —	mendian
a Iruña —	Iruña'ra	al monte —	mendira
para Iruña —	Iruña'tik	desde el monte —	menditik
con Iruña —	Iruñako	del monte —	mendiko

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ

EUSKALDUN BARRIENTZAT



zazpi erruak



KARMELE

ARPIDETZEKO TXARTELA

Zer Aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)
 Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan
 azenbakidun diru-kontura.

Zabaldu dagizun "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi besti bat!

BBK

euskerazaleak

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

1,20 euro

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²